



# ANAITASUNA

AÑO I — Núm. 5

Suplemento a la Hoja  
"ANAITASUNA" de Guipúzcoa

Noviembre 1953

## ANAIK GARA

Arnasoska dabil mutikoa. Bereztako aztunegia da karretillea. Ozta ozta emoten dau pausu bat aurrera. Elduko ete da gero aldatz gora puntara? Bitartean automobillak, berari kasurik egin baga, albotik pasetan dira. Alako baten geratuten da kotxe bat, eta ba diñotso txoferrak: «Mutil, neuk lagunduko deuat; itxaron apur baten». Eta bere automobil ederretik jatsita, lagundu egin eutsan mutil beartsuari.

«Anaiok, eroan eizuez batak bestearen kargak; olantxe beteko dozue Kristoren agindua», diño San Paulo Apostoluak.

Izan-bere, guztiok anaiak gara. Jainkoa da gure Aita, Jesukristo gure anai nagusia. Famili aundi bat egiten dogu kristiñauok. Bateo iturrian jaio giñean danok; etxe baten —eleizan— bizi gara guztiok. Bertan artzen dogu gure janaria: komuniñoa; bertan, gure gatxen osagarria: konfesiñoa. Bertan entzuten dogu gure Aitaren berbea. Bertan ikasten dogu alkarrerizor deutsagun anai maitasuna.

ANAITASUNA! Ze berba zoragarrial Ze berba indartsual Anaitasuna dala-ta, euren bizia emoten dabe

komunistak. Guztiok anaiak garealata, latzak eta baltzak pasetan ditue Marx'en jarraitzailleak, euren urko lagunen bizimodua jasoteko, obetuteko, bigunduteko, arinduteko. Barru barruraino sartu yake gizon guztien alkarren arteko anaitasuna.

Eta guk, Jesukristoren jarraitzailleok, zer egiten dogu? Ez dogu jakin oraiñarte guztiok anaiak gareana? Ez deusku pozez dardar eragiten pentsamentu eder onek: Guztiok, nai aberatsak nai pobreak, zein gazteak zein zarrak, bai euskaldunak ta bai erdaldunak, danok anaiak gareala?

Lagundu deiogun gure anaiari, arako txoferraren antzera. Lagundu deiogun gorputz eta arimako bearrizanetan. Besterik ez bada, errukitu gakiozan bere estualdietan, eta erre-gutu deiogun bere alde zeruko Aitari.

Ain zuzen-bere, ba daukogu ille onetan nogaitik otoitz egin. **Erregutu daigun purgatorioko anaien alde. Otoitz egin daigun Nerbion ibaiaren egal bietan—Galdakanotik Santurtzeraino — bizi direan gure anaien alde.** Zeruko Aitak ainbat arifien eroan daizala zerura arima errukarriak! Ugaritu daizala Bilboko Mixiñoan artu direan frutuak!

## AZKENENGO KURUTZEGRAMEAREN AZALPENA

**Ezkerretatik eskumaldera:** 1. Labagan.—2. Igar Lau.—3. Loti. Ain.—4. Iru. N.—5. T. Al.—6. Egin. Noe.—7. Gori. Uri.—8. Irakin. O. **Goitik beera:** 1. Lilitegi.—2. Agor. Gor.—3. Batu. Ira.—4. Ari. Nik.—5. G. I.—6. Alan. Nun.—7. Nai. Aor.—8. Un. Leio.

## KURUTZEGRAMA N.º 3

	1	2	3	4	5	6	7	8
I								
II								
III								
IV								
V								
VI								
VII								
VIII								

**Ezkerretatik eskumaldera:** 1. Baserritarren oiñetakoak.—2. Ez len, ez orain. Umeen berbetan, aginka egin.—3. Modu orretara. Atzera joateko beieri esaten yakona.—4. Odo-la ibiltan dan lekua. Konsonantea.—5. Vokala. Maiak egitekoa.—6. Baten. Arra ez dana.—7. Pozik dagoana. Umeen berbetan, jausi (atze-koz aurrera).—8. Naparroako erria, Urbasa mendietakoa. Vokala.

**Goitik beera:** 1. Ixillik egoten ez dakia-na.—2. Txori baltz aundia. Letra baten izena.—3. Mendien arteko zelaia. Uruna eraigita geratuten dana (atzekoz aurrera).—4. Zein (atzekoz aurrera). Erderazko «tan» (atzekoz aurrera).—5. Konsonantea. Vokala.—6. Numerua. Nume-rua.—7. Portua. Kortezubiko auzotegia.—8. Pronombre personala (atzekoz aurrera). Biz-karra.

## OLGETAN-BENETAN

—Entzun, kaikul Noiz yatok au-tomobilla?

—Ta zelan dakik ni kaiku nazana?

—Igarri egin yoat.

—Ba, igarri-be egin eik automo-billa noiz datorren.

Alper da Maria makillatu, ez bada berez biurtu.

Aurki agiriko, Maria Mañariko. (Denporeak esango dau gauza ori egia danentz).

Beti Maria goruetan bear ez di-rean orduetan.

Errementariaren etxean zotza burduntzi.

Euskaldun fededun.

## ERROSARIOA EUSKERAZ

Emoiozu gaurko gizon bateri li-buru bat. Asiko da irakurten; eta en-tendietan ez badau, beingoan itxiko dau liburua, ta ez dau barrero eskuan artuko. Mutiko bateri irakatsi eiozuz buruz gauza asko eskolan. Urte bat-zukarrenean, irakatsi deutzazuzan gauzak ulertu ez baditu, dana aztuko dau.

Bardintsu jazoten da eleizako gauzetan-be. Zegaitik kendu dira erri askotan domeka arratsaldeko bezpe-rak? Bearbada, eleizkizun ori erriak ulerfuten ez ebalako. Zegaitik ainbes-tek eta ainbestek uts egiten dabe me-zatara? Jente askok meza zer dan entendiduten ez dabelako. **Zegaitik ez dakiez askok errosarioko letai-ñak, edo errezetan ditue deboziño barik, edo esaten dabez latin mor-doilloz? Letaiñetako berbeta adituten ez dabelako.**

Au dala-ta, Eleiza Ama Santuak alegiñak egiten ditu, meza santua, zeremoniak eta osterantzeko latifñez-ko gauzak kristiñauak aditu daiezan. Orrexegaitik argitaratu doguz, Elei-zako baimenagaz «ANAITASUNA» eleizorri onetan Errosarioko Letaiñak euskeraz. Ebagi eizu pagiña ori. In-kau eizu goma apurtxu bategaz kar-toi baten. Eta egunean egunean errezau euskeraz errosario santua letaiñakaz ta guzti.

# ERROSARIOKO LETAINAK

**Jauna, erruki zakiguz.**

Kristo, erruki zakiguz.

Jauna, erruki zakiguz.

Kristo, entzun gaizuz.

Kristo, aditu gaizuz.

Jainko Aita zernetakoa,  
*erruki zakiguz.*

Jainko Seme, gizonen Salbatzaillea,  
*erruki zakiguz.*

Jainko Espiritu Santua,  
*erruki zakiguz.*

Jainko bat zarean Trinitade Santua,  
*erruki zakiguz.*

**Andra Done Maria,**  
*erregutu gure alde.*

Jainkoaren Ama santua,

Birjiñen Birjiña santua,

Kristoren Ama,

Grazi Emoillearen Ama,

Ama guztiz garbia,

Ama erru bagea,

Ama pekatu bagea,

Ama orban bagea,

Ama sortzez garbia,

Ama maitagarria,

Ama miragarria,

Burubide oneko Ama,

Kreatzaillearen Ama,

Salbatzaillearen Ama,

Birjiña guztiz zurra,

Birjiña agurgarria,

Birjiña goragarria,

Birjiña altsua,

Birjiña errukiorra,

Birjiña zintzoa,

Santutasunaren eredia,

Jakituriaren jarlekua,

Gure pozaren iturria,

Espiritu Santuaren atsedeen lekua,

Jainkoaren bizitoki onoragarria,

Jainkoari osoro eskiñia,

Maitasunezko egintza donea,

Dabiden jatorriko gloria

Edertasun utsik bagea,

Jainkoaren egintza bikaiña,

Jainkoagazko bakebidea,

Zeruko atea,

Goizeko izarra,

Gaixoen osasuna,

Pekatarien igeslekua,

Atsekabetuen pozgillea,

Kristiñauen laguntzea,

Aingeruen Erregiña,

Patriarken Erregiña,

Profeten Erregiña,

Apostoluen Erregiña,

Martirien Erregiña,

Konfessoreen Erregiña,

Birjiñen Erregiña,

Santu guztien Erregiña,

Jatorrizko erru barik sorturiko  
Erregiña,

Zeruetara jasoriko Erregiña,

Errosario santuaren Erregiña,

Bakearen Erregiña,

**Munduko pekatuak kentzen**

dozuzan Jainkoaren Bildotsa,  
*parka eiguzu, Jauna.*

Munduko pekatuak kentzen

dozuzan Jainkoaren Bildotsa,  
*entzun gaizuz, Jauna.*

Munduko pekatuak kentzen

dozuzan Jainkoaren bildotsa,  
*erruki zakiguz.*

Gure alde oteitz egizu, Jainkoaren Ama  
done orrek.

*Jesukristoren agintzariak jadetsi dai-  
guzan. Amen.*


## OTOITZA

*Emoiguzu, arren, Jainko Jauna,  
zure zerbitzariari gorputz eta arima-  
ko osasuna; eta Andra Done Maria  
beti Birjiñearen bidez, oraingo illunal-  
ditik urten eta zeruan betiko poza  
euki daigula. Jesukristo gure Jaunaren  
izenean. Amen.*

Erregutu gure alde

Erregutu gure alde





## **POLONIA'KO PERSEKUZIÑO**

### **Beste Obispo bat kartzelan**

Varsovia'ko gobernu komunisteak giltzapean sartu dau oraiñago Monseñore Anton Baraniak, Gniezno'ko Obispo Laguntzaillea eta Wyszynski Kardenalaren sekretarioa.

Onegaz amar dira kartzelan dagozan Obispo Poloniarrek. Euren artean ospatsuena, Monseñore Wyszynski Kardenala.

Eleiza Katolikua goitik beera ondatutea, orixe ei da gobernu komunistearen asmoa.

### **Aztu<sup>e</sup> egiten doguz gure martiriak**

Auxe esan dau Monseñore Camara'k, Rio de Janeiro'ko Obispo Laguntzailleak, Poloniako persekuziñoen gorabeerak kristiñau askok trankil trankil entzuten dituelako.

Monseñore Camara'k otoitzak eskatu ditu, Czelsaw Kaczmarek Obispo Jaunaren alde, kartzelan egin bear dauzan amabi urteak pazentziagaz eroan daizan.

## **Norte Amerikako katolikoak otoitz egiten dabe**

«Ipar Amerikako eleizgizonak eta osterantzeko kristiñauak besarkatu egiten doguz Polonia'ko gure anaiak euren sekulako ordurik baltzenezan». Auxe esan dabe naziño guztiaren aurrean Norte Amerikako Obispo Jaunak, Wyszynski Kardenala kartzelan sartu dabela jakitean. «Eurakaz batera otoitz egin gura dogu, Artzain maiteak bere nekeak sufrietako indarra euki daian, eta bere martirioa ainbat ariñen amaitu daiten».

### **Katoliko espaiñolak Aita Santuagaz**

Baita Espaiñiako kristiñauak-bere protestau dabe Wyszynski Kardenalaren kartzelamentuagaitik. Au dala-ta, telegrama bat bialdu deutsoe Aita Santuari. «Berorren ondoan gagoz —diño telegramaek—Polonia'ko Eleizearen kontrako persekuziño ordu onetan. Oraziñoak eta penitentziak egingo ditugu, lenbailen mundu guztian zuzentasuna, bakea ta maitasuna zabaldu daitezana».

### **Erromako exkomuniñoa**

Monseñore Wyszynski Kardenala kartzelan sartu dabenak Aita Santuaren exkomuniñoan jausi dira. Kastigu ori dauken bitartean, ezin leikee sakramenturik artu, ezin eleizan sartu, beste kristiñau eskubide asko ezin euki.

## **IRAKURRI "ANAITASUNA"**

**Zabaldu lagunen artean euskerazko eleizorri au**

Eskabideak direziño onetara:

*P. Rector del Colegio Seráfico*

PP. Franciscanos

FORUA (Vizcaya)

Dirección responsable: R. P. Director de "ANAITASUNA" TOLOSA (Guipúzcoa)